



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: HARPA

2024-03-09

Nori zuzenduak?

Graduko **Harpa Interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko martxoaren 1ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Harpa interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko errepertorio egokia

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ICART, Christine
Bérengère SARDIN eta Julien MARCOU irakasleen parte hartzearekin

10:30 Bilera informatiboa: bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa plana, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

11:30-12:00 Irakasgai ezberdinak aurkeztuko dira: errepertorioa, baxu jarraia, transkripzioa eta interpretazio historikoa Bérengère Sardin irakaslearekin

12:00-12:30 Instrumentu nagusia eta Ganbera musika irakasgaien aurkezpena Christine Icart irakaslearekin

12:30-12:45 Orkestra errepertorioa irakasgaiaren aurkezpena Julien Marcou irakaslearekin

12:45-13:30 Musikeneko harpa-ikasleen errezitaldia

13:30 ATSEDENALDIA

14:30-18:30 Christine Icart espezialitateko irakaslek eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat

18:30 Jardunaldiaren amaiera

Harpa jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Natalia Tchitch Hari Departamentuko buruarekin:
dpto.cuerda@musikene.net